

Euskal azentueren historiaz

Ander Egurzegi & Gorka Elordieta (UPV/EHU)
ander.martinez@ehu.es, gorka.elordieta@ehu.es

KOLDO MITXELENA KATEDRAREN III. BILTZARRA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Sarrera

Lanaren helburuak

- Gaur egun euskaraz dauden hiru azentuera mota nagusien berri ematen duen hurrenkera historiko bat aurkeztu.
- Hurrenkera hau ebidentzia fonetiko, geografiko eta historikoaz hornitu.

3 azentu sistema edo mota nagusi

Mitxelena (1957-58, 1961/77):

- (I. mota): Erdialde-mendebaldeko azentuera
- (II. mota): Ekialdeko azentuera
- (III. mota): Bizkaiko iparraldeko azentuera

3 azentu sistema edo mota nagusi

- Azentuera mota bakoitzean, hainbat azpimota
(Hualde eta Gaminde 1995; Hualde 1997, 1999; Gaminde 1998)
- Tarteko motak ere (Hualde 1997).

Erdialde-mendebaldeko azentuera

- Azentua hitzaren bigarren silaban kokatzen da.
- Azentuera hau daukaten mota zenbaitetan, bokalez bukatzen diren hitz bisilabadunetan azentua hitzaren lehen silaban doa.

Adibideak: *emákumea, gizóna, mutíla baina néska, óna, bíde.*

Erdialde-mendebaldeko azentuera

- Hasierako azentua duten lexikoki markaturiko hitzak daude, mailegu eta konposatuak gehienbat.

básoa (< Sp. vaso, cf. *basóa*), *léngusua*, *béstea*, *égia*.

Erdialde-mendebaldeko azentuera

Baina baita atzizki markatuek eraginda:

Beasain: *zakúrre* *zákurrek*
 gizónai *gízona*
 mendítik *ménditatik*

polítte *pólittegie*
 azkárra *ázkarrena*

txerríe *txérrikie*

etórri *étortzen*

Erdialde-mendebaldeko azentuera

- Azentuera zabalduena da:
Gipuzkoa gehienez, Bizkaiko hego-ekialdean eta Nafarroako mendebaldean.
- Euskalki guztien azentuera izan zela proposatu da. (Mitxelena 1961/1977: 405-410).

Ekialdeko azentuera

- Markagabeko azentua azkenaurreko silaban.
- Noizbait hitz guztiek azentua silaba horretan izan zezaketen.

Adibideak: *gízun*, *gizúna*, *néska*, *alhába*.

Ekialdeko azentuera

- Hitz markatuek amaieran daukate azentua.
- Hauek azken silabako diptongo edo bi bokal bat egitearen ondorio izaten dira.

Adibideak: *alhába* + abs. sg. *-a* > *alhabá*, *néska* + *-a* > *neská*, *ardũ*, *ardáũ* (< **ardano*), *añái* (< *añári*), *orgã* (< **organa*).

Ekialdeko azentuera

- Zubereran, erronkarian eta zaraitzueran aurkitzen da (baita Erro eta Esteribar haranetan, Luzaiden, Baztanen eta Ultzaman, cf. Hualde 1997).
- Hauen artean badira desberdintasunak azentuaren oinarriaz (hitza ala erroa).
- Funtsean, oinarriaren azkenaurreko silaban ezartzen da.

Bizkaiko iparraldeko azentuera

- Doinu-azentuan oinarritua, azentua morfologikoki zehazten da.
- Ezberdintasun lexiko bat dago hitz azentudun eta azentugabeen artean.

Bizkaiko iparraldeko azentuera

- la euskal hitz guztiak azentugabeak dira. Azentu gabeko morfemekin konbinatzen direnean, azentua amaieran agertzen da aditzaren aurrean edo isolaturik daudenean.

e.g. *laguná etorri da*

- Aditzaren aurrean ez daudenean, ez dute azenturik.

e.g. *laguna berandú etorri da*

Bizkaiko iparraldeko azentuera

- Hitz azentudunek morfema azentudun bat edo gehiago dituzte (erro edo izkietan).
- Euskal hitz eta izki singular gehienak azentugabeak dira, hitz mailegatu, konposatu eta izki pluralak azentudunak diren bitartean.
- Azentua lexikoki azentuduna den morfemaren aurreko silaban kokatzen da hizkera gehienetan.

Bizkaiko iparraldeko azentuera

laguná etorri da.

lagúnak etorri dira(s).

[lagun]-[‘ak] > lagú.nak

kalián ikusi dot.

kalíetan ikusi doras.

[kale]-[‘eta-n] > kalí.e.tan

Bizkaiko iparraldeko azentuera

béste mutilla, bélarri andidxa, éurre, átze, aiskóra, egúski, etab.

tóki, léku, ganbára, kipúla, libúru/líbru, etab.

Bizkaiko iparraldeko azentuera

e.g. *lagúnak etorri dira*

- Azentua H*+L beheranzko tonu kontorno bezala gauzatzen da silaba azentudunean.
- Pitch igoera bat dago esaldiaren bigarren silaban.

Bizkaiko iparraldeko azentuera


lagúnen (pl.) amúma ikusi dot

la.gú.nen a.mú.ma

| | | |

%L H*+L %L H*+L

Bizkaiko iparraldeko azentuera



Azentuera zaharra

Hipotesiak:

- Martinet (1950, 1955, 1981): Hitz hasieran [σ́ σ]
- Mitxelena (1958, 1961/77): Bigarren silaban [σ σ́]
- Hualde (1995): Sintagma mailako azentua
[σ σ σ σ́]
- Lakarra (1995): Erro monosilabikoaren teoria

Azentuera zaharra

Martinet (1950, 1955, 1981):

Bi herskari ahoskabe daudenean,
lehenak hartzen du hasperenketa
(*phika, phintakoste*).

Fortis eta lenis-en distribuzioarekin
lotzen du baitere; fortisak hitz hasieran.

Azentuera zaharra

Mitxelena (1958, 1961/77):

Aspirazioarekin ere lotzen du azentua.

Aspirazioa lehen edo bigarren silaban doa, inoiz ez (ekialdean) eskuinerago.

Sudurkarien aspirazioa bigarren silaban joanez gero, ez eskuinerago.

Lat. *(h)onóre* > *ohóre*

baina

Lat. *ballaena* > *balea*

Azentuera zaharra

Mitxelena (1958, 1961/77):

Aspirazioa bigarren silaban duten hitzak lehen silaban dutenak baino zaharragoak dira.

behar, akher, bikhe, bekhatu, gathe
zaharragoak *pharka(tü), khorpuz, khate* edo
phiper baino.

Azentuera zaharra

Mitxelena (1958, 1961/77):

Hitz konposatuetan, bi kideek bazuten hasperenketa lehen silaban, bigarren kidearen lehen silabak mantendu zuen, ez lehenak

(Indiera zaharrearantz eta grekera klasikoan bezala, edo hizkuntza amerindioetan kontsonante laringalekin gertatzen diren murriztapenen antzera, i.e., Grassmannen Legea)

hil + herri > *il-herri*

hur + hentu > *ürhentu*

Azentuera zaharra

- Hualde (1995, 2003):

Sintagma mailako azentuera, hitz azentugabe eta azentudunekin (gaur egun Bizkaiko iparraldean bakarrik gordetzen dena) zaharragoa izan behar da hitz mailako azentuera baino.

- sistema konplexuagoa delako. Oso markatua azentu sistemen tipologian (japonierazko Tokyoko dialektoa).

- morfologiak eragindako azentuzko kontrasteak hedatuak zeudelako beste euskalkietan ere.

Azentuera zaharra

- Martinez Areta (2004)

I. Aitzinmendebaldekoa

Mitxelenaren I. mota (gipuzkera, bizkaiera eta “Gipuzkoatik gertu dauden hizkera nafar batzuk” (Goizueta?))

II. Aitzinerdikoa

Mitxelenaren IV. mota (Bidasoa harana, Bortziriak, kostaldeko lapurtera).

III. Aitzinekialdekoa

Mitxelenaren II. mota (zuberera eta erronkaria).

Azentuera zaharra

- Arazoa:

Aitzinerdikoa aitzinmendebaldekoa baino zaharragoa dela asumitzen duela.

Mitxelenak bezala, zailtasunak azaltzeko nola heltzen garen askoz sistema konplexuago batera, nondik ateratzen diren hitz azentugabeak eta azentudunak, eta nola ateratzen diren azentua aurreratzeko arauak (atzizki markatuen aurreko silaban).

Azentuera zaharra

- Hualde (1995, 2003):

Baina ez du azaltzen nola sortu zen sintagma mailako azentuera, edo sintagma hasierako tonu gorakada, edo goiko tonuko lautada hori.

$[\underline{L}/\overline{H H H^*}]$

Azentuera zaharra

- Gure proposamena:

- Martineten hipotesia baztertzen dugu.
- Azentuera orokorra inoiz lehen silaban izan bazen, nola desberdindu hitz markatuak eta ez markatuak?

Azentuera zaharra

- Gure proposamena (jarr.):

- Euskara monosilabiko eta aurrizkidun batean, erroek H^* izango lukete, aurrizkiek tonuarentzat espezifikaziorik izango ez luketen artean (Elordieta 2011):

[0 H^*] [0 H^*] [0 H^*]

Azentueren bilakaera

- Gure proposamena (jarr.)

- Sintagma baten barnean, tonua eskuinerantz zabalduko litzateke erro/hitz baten amaieratik hurrengo tonurik gabeko silabara, sintagmaren sekuentzia tonalari homogeneotasuna emanaz (Elordieta 2011).

Azentueren bilakaera

Gure proposamena (jarr.)

Elordieta 2011:

$[[0 \ H^*] \ [0 \ H^*]] \ [[0 \ H^*]]$



$[[0 \ H^*] \ [H \ H^*]] \ [[0 \ H^*]]$

Azentueren bilakaera

- Gure proposamena (jarr.)

- Ondoren, sintagma hasierako silabak L tonua hartuko luke (bantu hizkuntzetan bezala), eta eskuineko H-a esaldiaren azentu bezala berrinterpretatuko litzateke. Bizkaiko iparraldean gordetako sistema garatuz (Elordieta 2011):

$[\underline{L} / \overline{H H H^*}]$

Azentueren bilakaera

Gure proposamena (jarr.)

$$[[0 \ H^*] \ [H \ H^*]] \ [[0 \ H^*]]$$



$$[[L \ H] \ [H \ H^*]] \ [[L \ H^*]]$$

Azentueren bilakaera

- Gure proposamena (jarr.)

- Esaldiei dagokien sistema horretatik, esaldi hasierako pitch-aren igoera bigarren silaban kokaturiko azentu demarkatibo bezala berrinterpretatu zen erdialde-mendebaldeko azentuera sorraraziz.

(Hualde 1995, 2003, 2007, Elordieta & Hualde 2003, Elordieta 2011)

Azentueren bilakaera

Gure proposamena (jarr.)

$[\underline{L}/\overline{H H H^*} \setminus] > [\underline{L}/\overline{H^* H H^{(*)}} \setminus] > [\underline{L}/\overline{H^*} \setminus \underline{L L}]$

Erdialdeko $[\sigma \acute{\sigma} \sigma \sigma]$

Azentueren bilakaera

Gure proposamena (jarr.)

Azentueraren kokapen honek baldintzatuko lituzke (Egurtzegi 2012) hasperenaren distribuzio modernoa (cf. Mitxelena 1961/77, Igartua 2001, 2006) eta horren ondorioz gertaturiko hautemate metatesia (Egurtzegi 2011), Lakarraren (2009) $h_3 > h_1$ -i dagokiona.

Azentueren bilakaera

- Gure proposamena (jarr.)

- Azkenik, erdialde-mendebaldeko azentueratik ekialdekoa sortuko litzateke, bigarren silabako azentua hiru silabadun hitzetan azkenaurrekoari dagokiola berrinterpretatu ostean (Mitxelena 1961/77, Egurtzegi 2012):

$$[\sigma \acute{\sigma} \sigma] > [(\sigma) \sigma \acute{\sigma} \sigma]$$

Azentueren bilakaera


Gure proposamena (jarr.)

Hurrenkerak honek lehenengo bi silabetako hasperenaren berri ematen du, ekialdeko euskalkiek bigarren silaban izan dutelako azentua azkenaurrekoan kokatu aurretik (Egurtzegi 2012). Ekialdeko azentueraren aurreko adarreztatze batek ez luke distribuzio hau azalduko. Elordieta (2011)n ez zen honakoa kontutan hartu.

Azentueren bilakaera

- Gure proposamena (jarr.)

- Elordieta (2011)



Azentueren bilakaera

Azentuera Zaharra (hitz mailakoa, azken silaban)



Sintagma mailako
azentuera



Bizk. Ip. Azent.

Hitz mailako azentuera (2. silaban)



Erdiald. azent.

Hitz mailako azentuera
(azkenurreko silaban)




Ekiald. azent.

Ebidentzia geografikoa

- Markatu/ez-markatu bereizketa erdialdeko euskalkian hedatzen zen XVIII mendean (Larramendi 1729).
- Goizuetako euskarak (goi nafarrera) Bizkaian topa daitekeen azentueraren aldaera bat erakusten du (cf. Hualde et al. 2008).
- Azentuera berriak ekialderantz zabalduko lirateke.

Euskalkien mapa



-  Mendebaldekoa
-  Erdialdekoa
-  Goi-Nafarrera
-  Nafar-Lapurtera
-  Zuberera
-  leku euskaldunak
ca 1850

Hitz markatuen ebidentzia

Batasuna dibertsitatean:

Hitz eta izki azentudunek azentuera markatua eragiten dute Bizkaia iparraldeko azentueran (azentua azkenaren aurreko silaba batean).

Horietako askok erdialdeko euskaran ere azentuera markatua eragiten dute: azentua hitz ez markatuetan baino silaba bat aurrerago agertzen da (i.e., hitz hasieran). Cf. Hualde (1997).

Hitz markatuen ebidentzia

- e.g., Bzk.lp. erdialdeko euskara (Beasain)

<i>belárri</i>	<i>bélarri</i>
<i>libúru</i>	<i>líburu</i>
<i>lodí-ena</i>	<i>lódi-ena</i>
<i>arín-egi</i>	<i>árin-egi</i>

- Hitz markatuak Bizkaitik urruti agertzen dira oraindik ere: Gipuzkoako ekialdea (cf. Irurtzun 2003) eta Goizuetan (Goi Nafarrera; cf. Hualde et al. 2008).

Ebidentzia segmentala

- Hasperena azentuaren aurretik baino ez da agertzen (Mitxelena 1957-1958), eta ekialdeko dialekto modernoetan bigarren bi silabetan baino ez zaigu agertzen (Egurtzegi 2012).

Adibidez: *hamar, zuhaitz, haur, bihar, harri, uharte, hiru, behar.*

Ebidentzia segmentala

- Halere, hasperena hitzaren edozein silaban agertzen da Erdi Aroko mendebaldeko toponimian, euskalki horretan galdu aurretik.

Adibideak: *Hilarrazaha, Hascarzaha, Arroiaha, Udalha, Aialha, Hurizahar, Harhaia, Hagurahin, Hereinzguhin* or *Hararihini, Adurzaha* edo *Gastehiz*.

Ebidentzia segmentala

Baita ondorengo dokumentazioan azentueraren aldaketak baldintzaturiko metatesi baten ondorioz hasperena beste toki ezberdin batean izango dituzten hitzetan ere:

*(h)u(r)bani > *ubahi* (cf. Muruvahy? 1251) > *ibahi* (cf. Manterola) > *hibai*

Ondorioak

- Osaturiko kronologiak euskaraz aurki daitezkeen hiru azentuera moderno mota nagusien garapen historikoaren berri ematen du.
- Ebidentzia segmental, historiko eta geografikoan oinarriturik dago.
- Aurreko autoreek (Mitxelena, Hualde) egindako lana jasotzen du eta Lakarraren erro monosilabikoaren teoria integratzen du.

Bibliografia

- Egurzegi, A., 2012, “Phonetics and Phonology”, agertzeke in Mikel Martínez (arg.), *Basque and Proto-Basque. Materials for a Historical Grammar*, Peter Lang.
- Elordieta, G., 1997, “Accent, tone eta intonation in Lekeitio Basque”, in F. Martinez-Gil eta A. Morales-Front (arg.), *Issues in the Phonology and Morphology of the Major Iberian Languages*, Washington DC: Georgetown University Press, 4-78.
- _____, 1998, “Intonation in a pitch-accent variety of Basque”, *ASJU* 32, 511-569.
- _____, 2003, “Intonation”, in J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, Berlin: Mouton de Gruyter, 72-112.
- _____, 2011, “Euskal azentuaren bilakaera: hipotesiak eta proposamenak”, *Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra: Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina [Iker 26]*, 989-1014.
- _____, eta J.I. Hualde, 2003, “Experimental test of a hypothesized diachronic change in Basque accentuation”, in M.-J. Solé, D. Recasens eta J. Romero (arg.), *Proceedings of the 15th International Congress of Phonetic Sciences*, Barcelona: Causal Productions Pty Ltd., 67-70. [Berrarg. in J.I. Hualde eta J. Lakarra (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in memory of R. L. Trask. ASJU* 40, 293-301].
- Gaminde, I., eta J. I. Hualde, 1995, “Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa”, *ASJU* 29, 175-197.
- Hualde, J.I., 1989, “Acentos vizcaínos”, *ASJU* 23, 275-325.

Bibliografia

- _____, 1995, “Reconstructing the ancient Basque accentual system: Evidence and hypotheses”, in J.I. Hualde, J.A. Lakarra eta R.L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language*, Amsterdam: John Benjamins, 171-188.
- _____, 1997, *Euskararen azentuakerak*, ASJU-ren gehigarriak 42, Donostia eta Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia eta EHU.
- _____, 1999, “Basque accentuation”, in H. van der Hulst (arg.), *Word prosodic systems in the languages of Europe*, Berlin: Mouton de Gruyter, 947-993.
- _____, 2003, “From phrase-final to post-initial accent in Western Basque”, in P. Fikkert eta H. Jacobs (arg.), *Development in prosodic systems*, Berlin: Mouton de Gruyter, 249-281.
- _____, 2007, “Historical convergence and divergence in Basque accentuation”, in C. Gussenhoven eta T. Riad (arg.), *Tones and tunes*, Berlin: Mouton de Gruyter, 291-322.
- _____, O. Lujambio, F. Torreira, 2008, “Lexical tone and stress in Goizueta Basque”, *JIPA* 38, 1-24.
- Irurtzun, A., 2003, “Stress on Accent: Errenteria Basque Revisited”, in M.J. Solé, D. Recasens eta J. Romero (arg.), *Proceedings of XVth ICPPhS*, 2075-2078.
- Jun, S.-A., eta Elordieta, G., 1997, “Intonational structure of Lekeitio Basque”, in A. Botinis, G. Kouroupetroglou eta G. Carayannis (arg.), *Intonation: Theory, Model and Applications*, Athens: ESCA, 193-196.

Bibliografía

- Lakarra, J.A., 1995, “Reconstructing the Pre-Proto-Basque root”, in J.I. Hualde, J.A. Lakarra eta R.L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language*, Amsterdam: John Benjamins, 189-206.
- _____, 2005, “Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco”, *Paleohispánica* 5, 407-470.
- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*, Antonio Joseph Villagordo Alcaraz, Salamanca.
- Martinet, A., 1950 [1974], “La reconstrucción estructural: las oclusivas del vasco”, in *Economía de los cambios fonéticos*, Madrid: Gredos, 524-550.
- Mitxelena, L., 1957-1958, “A propos de l'accent basque”, *Bulletin de la Société de Linguistique* 53, 204-220. [Berrarg. in J.A. Lakarra (arg.), 1988, *Sobre historia de la lengua vasca (ASJU –ren gehigarriak 10)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 220-239.
- _____, 1961 [1977], *Fonética histórica vasca*, Donostia-San Sebastián: Diputación Foral de Guipúzcoa.

Eskerrik asko zuen arretagatik!
